

Liburuaren jiran, egun batez

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da gaur Euskal Herriko zenbait hiriburutan

Gorka Erostarbe. Donostia.

Miguel de Cervantes, William Shakespeare eta Garcilaso de la Vega. Hirurak idazleak. Hirurak ezagunak. Eta hirurak egun berean hilak: apirilaren 23an. Horregatik aukeratu zuen Unescok egun hori Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko: liburuak eta haien egileak omentzeko, eta jendearen artean, gazteen artean batez ere, irakurzaletasuna bultzatzeko.

Urtero legez, hamaika ekimen egingo dira bihar liburuaren jiran, Euskal Herriko herri eta hiriburuetan. Egun batez bada ere, liburuak gutxieneko garrantzia hartuko du herritarren artean.

Donostiako Gipuzkoa plazan Liburu Azoka egingo da bihar: 17 erakustoki egongo dira. Zortzi liburu dendei dagozkienak izango dira, sei argitaletxeenak, eta bi banatzaileenak. Azokaren erdian karpa bat jarriko dute, eta han izango dira Lupe Lekuona ipuin kontalaria eta Iñaki Martiarena Mattin marrazkilaria. Elkarrekin ariko dira: ipuinak kontatzen bata, eta hark esandakoa marrazten bestea. Gipuzkoako hainbat pertsonaiak liburu bateko pasarteak irakurriko dituzte karpa horretan egun osoan. Nahi duen orok bost minutuz pasarte bat irakurtzeko aukera izango du, gainera. 09:30etik 21:00 aldera arte etengabe irakurtzen egotea da egitasmoaren helburua.

Gabriel Garcia Marquez, Lewis Carroll eta Edgard Herge omenduko ditu aurretik Donostiako Liburu Azokak. Carrollek idatzitako Alice in Wonderland eta Hergek idatzitako Tintin pertsonaiaren inguruko abenturak izango dituzte ispilu III. Komiki lehiaketan parte hartuko duten gazteek, hain zuzen ere.

Karpa horretan bertan aurkeztuko dira Donostia Opera Prima saria irabazi zuen Aitziber Etxebarriaren eta Erein-Euskadiko Kutxa saria irabazi zuen Karlos Linazasororen liburuak. Bestetik, Uxue Alberdi eta Katixa Agirre idazleek, Aulki bat elurretan eta Sua falta zaigu liburu berrien aleak sinatuko dituzte, hurrenez hurren.

Horrez gainera, 350 liburu zozketatuko dituzte. Azokako erakustokiren batean liburu bat erosi duenak parte hartu ahal izango du zozketan. Eguna amaitzean, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere gehien saldu den liburua zein den jakinaraziko da. Liburu horren egileak irabaziko du Zilarrezko Euskadi saria.

ARTIUM MUSEOAREN EKIMENA. Bookcrossing edo liburuak kalean uzteko esperientzia proposatuko du Gasteizko Artium museoak bihar. Arteari, argazkigintzari, diseinuari, arkitekturari eta besteri zenbait gairi buruzko 300 ale utziko dituzte hiriko zenbait gune publikotan. Liburuak jasotzen dituzten herritarrek, liburuaren barruan izango dituzte argibideak, zer egin jakin ahal izateko. Ingelesezko hiru r-ak bete beharko dituzte bookcrossing-aren filosofia betetzeko: read (irakurri), register (erregistratu) eta release (utzi). Argibideak jarraituz gero, sarearen bidez -www.bookcrossing-spain.com helbidean- ikusi ahal izango da liburuak egindako ibilbidea. Artium museoko liburutegiko kopien sailetik ateratakoak izango dira liburuak.

Bizkaiko Diputazioak, bestalde, 10.000 liburu ale banatuko ditu, azken urteotako ohiturari jarraituz, autobus, tren eta metro geltokietan. Euskal Herriko 59 idazleren liburuak banatuko dituzte. Nafarroako Liburu Saltzaileen Elkarteak, berriz, liburuak %10 merkeago saltzeko erabakia hartu du. Gainera, dendak irekita egongo dira 10:00etatik 22:00etara, inolako etenik egin gabe.

BESTE ZENBAIT EKIMEN

Eibar

Bernardo Atxagak Zebrak eta heriotza. Poesiaz irakurketa publikoa egingo du, bihar (19:00etan), Portaleko Areto Nagusian.

Getxo

Liburu Azoka dago bihar arte, Algortako Geltokia plazan. Erosleek %10 merkeago erosi ahalko dituzte liburuak.

Mutriku

Liburuaren Astea egingo da bihartik hilaren 27ra bitartean. Erakusketak eta tailerrak egingo dira Zabel kultur etxean.

Apirilaren 26an hitzONTZIA: testu laborategia ikuskizuna, Mikelazulo kultur elkartearen.

Iruñea

Irakurketa maratona egingo dute bihar Hizkuntza Eskolan. Zenbait kultura eta hizkuntzako ipuinak irakurriko dituzte egun osoan. Goizeko zortzietan hasiko dira irakurtzen, eta arratsaldeko seietatik zortzietara jarraituko dute Compañía enparantzan egingo dute.

Deustu

Espainiako 27ko Belaunaldiko idazle eta poeten testuak irakurriko dituzte Deustuko Unibertsitatean, bihar 10:00etatik 13:30era.

'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoa aurkeztu berri du. Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako 14 herritan gauzatuko da, eta irakurzaletasuna sustatzea du helburu nagusia, ekimenaren sustatzaileek adierazi dutenez. Egitasmoa bihar hasiko da, Liburuaren Nazioarteko Egunean eta ekainaren 23ra arte iraungo du.

Parte hartzen duten herrietako liburutegietan, euskarazko 100 liburu egongo dira aukeran, kanpainarako beren-beregi jarritako apalategi batean. Liburu horietatik, 90 berdinak izango dira herri guztietan, eta beste 10, berriz, herrian bertan aukeratutakoak. 90eko multzoaren aukeraketa Patxi Zubizarreta idazleak egin du. Egitasmoan parte hartu nahi duenak, ehun liburu horietako bat aukeratu, maileguan hartu eta irakurtzeko aukera izango du. Liburua itzuli ostean, liburuaren inguruko iritzia jasotzeko fitxa sinple bat bete beharko du. Fitxa betetakoan, irakurleak deskontu txartela jasoko du liburua nahi duenari oparitzeko. Txartel horrekin, irakurri berri duen liburua %25 merkeago erosi ahal izango da egitasmoan parte hartzen duten liburu dendetan.